20 02
BEASAIN, LAZKAO ETA ORDIZIA KONURBAZIOA

Kornubazio bat antzeko garrantzia duten hainbat herrien multzoa da, aldi berean hazi egin direlako eta ondorioz, etenik gabeko hirigune bat sortu dutelako.

Euskal Herrian mota honetako kornubazioen hainbat adibide existitzen dira, horien artean, Beasain, Ordizia eta Lazkao herriek Gipuzkoan sortu dutenak. Hiru herri horiek kornubazio txiki bat bat eratu dute, eta bertan 17.000 biztanle inguru bizi dira, ekonomia jardueretarako erabilitako azalera handi bat barne.



Beasaingo udala



Ordizia. Azoka.

Beasain.

Beasaineko “herrixka” Villafrancarekin bat egin zuen (gaur egun Urretxu) 1399. urtean eta 1615ean bereizi zen hiri independente bilakatzeko. 1881ean, Gudugarreta herri txikia Beasainekin batu zen.

Gaur egun, 13.000 biztanle inguruko industria herri bat da. Bertan, Gipuzkoako lehenengo labe garaia instalatu zen (San Martín de Urbieta fundizioa), eta hura, denborarekin, herriko industria nagusi bilakatu zen: Compañía Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) konpainia, trenetarako materialaren fabrikaziora eta muntaiara dedikatuta.

Ordizia.


1256. urtean, Alfonso X.ak “jakituna” Ordizia herriari forua eman zion (ziur aski kokatzen zen gaur egun S. Bartolome ermita aurkitzen den lekuan), beraz, herri berria Villafranca de Oria deitzera pasa zen. Izen hura eduki zuen 1970. urtera arte (Villafranca de Ordizia), eta 1982an egungo Ordizia izena eskuratu zuen. Gaur egun 9.000 biztanle inguru ditu.

Lazkao.

Udalerriko izenak berak argi adierazten du Lazcano familiarekin historikoki eduki zuen lotura estua, alegia; bandoen guda garaian, Oñazinoen bandoaren familia nagusienetariko bat. Horiek parrokia elizaren nagusiak eta, besteak beste, burdinola baten jabeak ziren. Gaur egun 5.000 biztanle inguru ditu.

Kornubazio prozesua ibai ibileretako haranekin bat egiten duten komunikabideei jarraituz burutzen da. Beasain eta Ordizia Oria ibaiko haranean garatzen dira eta Lazkao, berriz, eskuin aldeko bere adarraren haranean, Agauntza, alegia. 1945. urterako, Beasainek eta Ordiziak ia bat egiten zuten, nagusiki industriaren bitartez.


Lazkao beranduxeago iritsiko zen, beraz, 1970eko hamarkadan aipatutako hiru udalerriek bat egin zuten.



Ortoargazkia 1954; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ordiziako gune historikoa eta inguruak.



Ortoargazkia 1954; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ordiziako gune historikoa eta inguruak.



Ortoargazkia 1945-46, amerikar hegaldia, A segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Erakunde Nazionala. Beasain, Ordizia eta Lazkako hiriguneek ez dute etengabeko hiri gune bat osatzen, hala ere, lehenengo biak elkarrengandik Lazkao baino gertuago daude.Gorriz adierazi dira urbanizatutako gutxi gorabeherako guneak (bizitoki lurzorua eta ekonomia jarduerakoa).



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 565851 m // Y: 4766396. Ikus daiteke etenik gabeko hirigune bat osatu dela Ordizia, Beasain mendebaldean eta Lazkao artean, hegoaldean, eta ondorioz, kornubazio bat ezarri dela.